

## XII RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

### *AZKEN ERABAKIA*

*XII Rikardo Arregi Kazetaritza saria* epaitzeko Andoaingo Udalak izendaturiko Epaimahaikideek -Jose Antonio Barandiaran, mahaiburua, Miren Azkarate, Allande Boutin, Koldo Ordozgoiti, Iñaki Zabaleta, eta idazkari gisa eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe, Nekane Goikoetxeak osatutakoak- ondorengo *azken erabakia* hartu eta ezagutzera ematea adostu dute. Zoritxarrez, Joxerra Garzia epaimahaikideak arrazoi pribatuak direla eta ezin izan du erabakietan parte hartu:

1.- 1988an sortu zen Rikardo Arregi Kazetaritza Saria. Euskarazko kazetaritza bultzatzeko sortu zen, hain zuzen ere eta herritar eragile gazte baten izenez bataiatu zen saria. Aldaketak izan ditu sariak, esate baterako, 96ra arte prentsa idatzira mugatu zen. Gaur, XII. edizio honetan, argi ikusiko dugu, ordea, ikus-entzunezkoen arloak, irrati eta telebistako lanek, badutela beren tokia Rikardo Arregi Kazetaritza Sarian. Bestalde, gaur egun, Sari Nagusia eta Kazetari Berria deituriko atalak ditugu. Azken hau 25 urte baino gazteagoentzat.

Ibilbide luze honetan gorputza hartu du sariak, erreferentziazkoa bihurtu da euskal kazetarien artean. Benetan pozgarria iruditzen zaigu hau, batez ere, saridunei atek errazago zabaltzen zaizkielako eta euren lanean aurrera egiteko aukera ematen zaielako. Hori da sari honen atzean dagoen benetako

altxorra. Laster batean, saridunen izenak esaten ditugunean, hauen aurpegietako irribarreak erakutsiko digu sari honen egiazko balioa.

Argi dago, ordea, batzuk saritzeaz batera beste hainbat lan baztertu egin behar izaten direla. Guztira, 18 lan aurkeztu dira “kazetari berria” atalerako eta 42, berriz, Sari Nagusirako. Epaimahaiak bereziki eskertu nahiko luke epaimahaiak berak eskatuta aurkeztu diren lanen atzetik dauden pertsonen ahalegina. Izan ere, sari nagusirako, kazetari berria atalerako ez bezala, ez da nahitaezkoa lanak edo/eta proposamenak aurkeztea. Epaimahaiak bere gain hartzen du euskal kazetaritzaren esparruan urtebetean plazaratutakoen jarraipena egitea eta kazetaritza lan jakin batzuk aurkezteko gonbitea luzatzea. Epaimahaiak, hortaz, espresuki eskertzen du jasotako erantzuna.

2.- Hurrengo hau da epaimahai honen erabakia:

\* 2.1.- “*Kazetari berria*” ataleko saria, 400.000,- pezetaz, diplomaz eta Xabier Laka eskultorearen oroit-ikurraz hornitutakoa. Kazetaritza munduan lehen urratsak egin dituzten gazteentzat pentsatua, 25 urtetik beheragokoek dute aurkezteko aukera.

Aurtengo edizioan irratiko programa bateko erreportajeak dira saritutako lanak. Orain aipatuko ditudanak dira, epaimahaiaren ustez, lan honen merezimenduak:

- Irrati programa bateko erreportajeak dira saritu direnak. Aipatzekoa, beraz, lehendabizi, erabilitako formatoa bera da, azken urteetan

batez ere hegoaldeko irratigintzan gutxi erabili dena. Erabilgarria eta polita da historia bat kontatzeko aukera ematen duelako.

- Erreportaje hauetan gai erabat ezberdinak lantzen dira (transplanteak, Autonomi Estatutuaren 20. urteurrena, ezinduak...) baina guztietan gaiari hurbiltzeko ikuspuntu ezberdinak jasotzen dira. Gaia aberastu egiten dute ikuspuntu ezberdinek. Maiz aipatzen den “aniztasuna”, argi azaltzen da aurkeztutako lanetan. Erreportajeak sakonak eta aberatsak dira, oso ondo landuak eta ideia ezberdinak ondo txertatuak daude.
- Sentimenduak, iritziak eta datu hotzak hari finez josi ditu kazetariak. Tono goxoa erabili du, egokia. Errespetuz hartu ditu gaiaren ikuspuntu ezberdinak azalduko dituzten kontalariak. Galdera azkarren bitartez egituratu du ordu erdiko saioa. Gaiak biribildu egin ditu.
- Laburbilduz, hari finez jositako ikuspuntu ezberdinez osatutako gaiak sakontasun osoz komunikatu dizkigu, irratigintzan denbora luzez baztertuta egon den erreportajearen bitartez.

+ *Sariduna*: **Oihane Yustos Alejandro andrea**.

+ *Saritutako lana*: **Euskadi Irratian Goiz Kronika**

**programan 1999ko irailaz geroztik larunbat goizetako erreportajeak.**

Oihanek berak jasoko du saria.

\* **2.2.- XII Rikardo Arregi Kazetaritza sariko “sari nagusia”**, diplomaz, 1.000.000,- pezetaz eta Xabier Laka eskultorearen oroit-ikurrak hornitutakoa. Honen bitartez saritzen dena kalitatea, berrikuntza eta

eredugarritasuna dira. Telebistako programa bat da saritu dena. Hauek dira epaimahaiaren ustez azpimarratzeko alderdiak:

- Programa honen kalitate tekniko-artistikoa jaso da epaimahaiaren iritziz. Programa txukuna da, egunetik egunera hobetzen doana. Berrikuntza tekniko nahiz artistikoei aparteko garrantzia eman die programaren atzean dagoen lan taldeak.

- Programa honetan estilo bat landu dute. Elkarrizketan bizitza-kontakteta landu dute. Solaskideari askatasunez hizketan jarduteko aukera ematen zaio, patxadaz aritzekoa. Bestalde, gai antropologikoak egoki jorratzen dira. Giza-intereseko informazioa azpimarratzen jakin dute.

- Programa hurbila da, Euskal Herrian egindako produktua, ikusleek hurbil sentitzen dutena, egunerokoa. Komunikazio zuzena lortu dute ikusleekin, hitza eman diote honi.

- Adin ezberdinen arteko kohesioa lortu du programa honek, bai barruan, lan taldean, bai kanpoan, ikusleen artean. Programa honen atzetik duen gazte taldearen lanak freskotasuna dakarkio argi eta garbi.

- Talde lanaren emaitza dela antzematen da.

- Bereziki aipatu nahiko genuke euskalkiei ematen zaien tratamendua. Euskal herri osorako den programa izaki, euskalkiak kohesio elementu garrantzitsuak dira. Euskalki guztien ordezkariak ditugu programan eta hori txalotzekoa iruditzen zaio epaimahaiari. Bestalde, Euskal Herri osorako kultur erreferente izan nahi horri ere azpimarratzekoa irizten dio.

- Gai ezberdinak jorratu arren, serioak batzuk, friboloak besteak, tono egokia mantentzen da programan, beste magazin moduko produktuetan ez bezala. Horrelako generoan oso zaila den arren, programak jakin badaki

animazioa eta informazioaren arteko oreka atxikitzen. Hots, modu lasai eta atsegin batean baina seriooki, gizarte, kirol nola kultur gaien berri ematen digu programak. Albistegien osagarria da, hain zuzen ere.

+ *Sariduna*: Euskal Telebistan Elixabete Garmendiaren zuzendaritzapean Bertatik Bertara programa egiten diharduen lan taldea.

+ *Saritutako lana*: Euskal Telebistan astelehenetik ostiralera 5 urtez egin den Bertatik Bertara programa  
Elixabete Garmendiak eta Andoni Aizpuruk jasoko dute saria.

Honaino, bada, *XII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari* dagokion *azken erabakia*. Epaimahaikideok ontzat ematen eta sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila. urteko uztailaren batean.

Era berean, epaimahaikideek ez dute ekitaldi hau amaitu nahi Rikardo Arregik 1964an, 21 urte zituela, Zeruko Argian argitaratutako hitz hauek irakurri gabe, gaurkotasuna galdu ez dutelako. Rikardoren hitz hauek ekarri nahi dira hona denok hausnartzeko:

*“Gizonak elkarren artean konpontzeko, ideiak eta teoria guztiak kendu beharko balira, ez litzake benetan konponketa izango, gizon(ar)ik ez genukeelako esku artean. Ideiarik gabe ezin daiteke benetako gizona izan, benetako konponketa ez da gizon guztiak ideia berdinak edukitzea edo batere ez edukitzea, baizik eta denak ideia ezberdinak izan arren elkarren artean izaten jakitea.”*

**(Rikardo Arregi. Zeruko Argia , 1964ko otsailaren 9an argitaratua)**

**José Antonio Barandiaran**

**Miren Azkarate**

**Allande Boutin**

**Koldo Ordozgoiti**

**Iñaki Zabaleta**

**Nekane Goikoetxea**